

TXOSTENA / MEMORIA

01: DIPUTATU NAGUSIA

Diputatu Nagusiaren alorraren jarduera eremua eta egitekoak eta horretarako beharrezkoa duen antolaketa ezartzen dute, hurrenez hurren, Diputatu Nagusiaren 2011ko ekainaren 30eko 4/11 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, 4. artikuluan, eta 2011ko uztailaren 19ko 24/11 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarritzko departamentu egiturari buruzkoak, 1. artikuluan.

2011ko ekainaren 30eko 4/11 Foru Dekretuaren 4. artikulua diputatu nagusiari laguntzeko zeregina duen Kabinetea aurreikusten du eta Diputatu Nagusiaren alorra sendotzen du izaera horizontal nabarmeneko jardun esparruen kudeaketa esleituta, hala nola: euskararen normalizazioa eta erabilera gizartean nahiz foru administrazioan, herritarren parte hartzea, berdintasuna, giza eskubideak eta migrazioa.

Bestalde, 2011ko uztailaren 19ko 24/11 Foru Dekretuaren 1. artikulua esleitutako jardun esparru eta eginkizun horiei behar bezala erantzungo dion oinarritzko konfigurazio organikoa finkatzen du, honako hauek osatutakoa: arestian aipatu Kabineteak, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza atxikita duenak (baina foru administrazioaren egitura hierarkikoan sartu gabe), bost zuzendaritza nagusik eta zerbitzu maila izango duen Diputatu Nagusiaren alorreko Idazkaritzak.

Bost zuzendaritza nagusi hauek dira: Euskara Zuzendaritza Nagusia, Berdintasun Zuzendaritza Nagusia, Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza Nagusia, Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, eta Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusia.

1. DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA

Diputatu Nagusiaren Kabineteko aurrekontuak, lurraldearen interes orokorrak zuzendu, koordinatu, ordezkatu eta sustatzeko funtsezko

01: DIPUTADO GENERAL

El artículo 4 del Decreto Foral del Diputado General 4/2011, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, y el artículo 1 del Decreto Foral 24/2011, de 19 de julio, sobre estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, establecen el ámbito de actuación y las funciones que se atribuyen al área del Diputado General y la organización con la que se dota para ello.

El artículo 4 del Decreto Foral 4/2011, de 30 de junio, contempla la existencia de un Gabinete como órgano de asistencia, y refuerza el ámbito del Diputado General con la atribución de la gestión de determinadas áreas de actuación de marcado carácter horizontal, a saber: normalización y uso del euskera en la sociedad y en la Administración Foral, participación ciudadana, igualdad, derechos humanos y migración.

Por su parte, el artículo 1 del Decreto Foral 24/2011, de 19 de julio, fija la configuración orgánica básica que ha de responder a las áreas de actuación y funciones atribuidas y que está conformada por el Gabinete antes mencionado, al que se adscribe la Dirección Foral para la Participación Ciudadana sin integrarse en la estructura jerárquica de la Administración Foral, por cinco direcciones generales y por la Secretaría del área del Diputado General, que se crea con rango de Servicio.

Las cinco direcciones generales son la Dirección General de Euskera, la Dirección General de Igualdad, la Dirección General de Migración y Diversidad, la Dirección General de Comunicación y la Dirección General de Derechos Humanos y Memoria Histórica.

1. GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

Los presupuestos del Gabinete del Diputado General reflejan, en general, el conjunto de actuaciones inherentes a las funciones básicas

betekizunei dagozkien jarduerak islatzen ditu nagusiki.

Diputatu nagusiari dagozkion lidergo eta koordinazio funtzioen esparruan, Diputatu Nagusiaren Kabineteko aurrekontuan gobernuaren jardueraren koordinazio eta jarraipen lanentzako aurrekontu zuzkidura jasotzen da. Helburu orokorra da Gipuzkoa etorkizunerako bideratzea eta prestatzea, eta horretarako planteatzen dira bakea eta normalizazioa garatzea; krisi ekonomikoari irtenbide sozialak ematea; berdintasun politikak abiaraztea; eta Gipuzkoako erakundeak irekitzea demokrazia parte hartzaileari.

1.1 HERRITARREN PARTAIDETZA ZUZENDARITZA

2011-2015 legegintzaldian Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza Diputatu Nagusiaren Alorrari atxikitako zuzendaritza modura antolatu da, duen garrantzia azpimarratzeko eta zeharkako izaera lortzeko, hau da, Foru Aldundiaren jarduera ezberdinetan eragingo duten politika eta neurri zehatzak garatzeko. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak landu nahi dituen ardatz nagusietako bat parte hartzearena da: Gipuzkoako herritarrengana demokrazia zabaltea, Gipuzkoako instituzioak irekitzea eta, horretarako, herritarren parte hartzea instituzioetan bermatzea.

Herritarren parte hartzea, herritarren eta herri erakundeen arteko botere-harremanak eraldatzeko, demokratizatzeko, prozesua da. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat prozesu iraunkorra izango da, eta tresna anitzen bidez gauzatuko da. Zuzeneko demokraziak, partaidetzazko demokraziak eta demokrazia ordezkatzailleak, modu konbinatuan, herritarrei protagonismoa emateko balio behar dute, horrela subjektu aktibo bihur daitezten. Parte-hartze prozesuak herritarrentzat garrantzitsuak diren gaitan eztabaidarako eta erabakiak hartzeko guneak zabaltzea ekarriko du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia da, kudeaketa publikoa hobetzeko, erakundeetan egiten dena herritarrek kontuan hartuta egitea,

de dirección, coordinación, representación y promoción de los intereses generales del territorio.

En el marco de la función de liderazgo y coordinación que corresponden al Diputado General, el presupuesto del Gabinete del Diputado General contempla la dotación presupuestaria que corresponde a la tarea de coordinación y seguimiento de la actuación del ejecutivo que, desde el objetivo general de orientar y preparar Gipuzkoa para el futuro, se plantea el desarrollo de la paz y la normalización; la búsqueda de soluciones sociales a la crisis económica; el impulso de políticas de igualdad; y la apertura de las instituciones guipuzcoanas a la democracia participativa.

1.1 DIRECCIÓN DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

En la legislatura 2011-2015, la Dirección Foral de Participación Ciudadana se ha organizado como una dirección adscrita al área del Diputado General, para destacar su importancia y lograr su carácter transversal, es decir, para desarrollar políticas y medidas concretas que influirán en las diferentes actuaciones de la Diputación Foral. Además, uno de los ejes de trabajo principales de la Diputación Foral de Gipuzkoa radica en la participación: Extender la democracia a los guipuzcoanos y guipuzcoanas, abrir las instituciones de Gipuzkoa, y, a tal fin, garantizar la participación de la ciudadanía en las instituciones.

La participación ciudadana es un proceso de transformación y democratización de las relaciones de poder entre la ciudadanía y los organismos públicos. La Diputación Foral de Gipuzkoa lo entiende como un proceso continuo, que se materializará a través de diversas herramientas. La democracia directa, la democracia participativa y la democracia representativa deben servir, de modo combinado, para dar protagonismo a la ciudadanía, para que ésta se convierta en sujeto activo. El proceso participativo traerá consigo la apertura de espacios de debate y toma de decisiones en aquellos temas que son importantes para la ciudadanía, y es pretensión de la Diputación Foral de Gipuzkoa que la

ikuspegi zabalagoarekin.

2. EUSKARA ZUZENDARITZA

Euskararen Zuzendaritza Nagusiaren helburu orokorra da Gipuzkoako administrazioan eta gizartearen euskararen erabilera normaltzearen aldeko ahaleginak planifikatu, elkartu eta bideratzea.

Administrazioaren alorrean, Zuzendaritzaren lanaren esparrua arautzen du 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak. Aldundiaren barruan, bosgarren plangintzadiari (2013-2017) dagokion Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana abiaraziko dugu 2013. urtean.

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2008-2012 aldirako onartzen zuen 2009ko urtarrilaren 27ko 3/09 Foru Dekretua (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 25. zk. 2009ko otsailak 2) eguneratzeko proposamena eramango dugu Diputatuen Kontseilura. Lanpostuei ezarritako hizkuntz eskakizunen eta derrigortasun daten inguruko alderdi guztiak zehazteaz gain (lanpostuen zerrenda berritu), planaren beste funtsezko alderdi batzuk ere ezarriko ditugu, hala nola atal elebidunak eta euskarazkoak.

Horrez gain, Aldundiak 2011n eskuratutako Bikain ziurtagiriaren ebaluazio txostenak zehazten dituen hobekuntza helburuak betetzeko zereginei jarraitasuna emango die 2013an. Lanaren alderdi horrek berebiziko garrantzia izango du, euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeko planak indartu eta orientatzeko garaian, eta, orobat, Aldundiaren eginkizun esparruetan euskararen erabilera normaltzeko politika bideratzeko garaian.

Administrazio barruko lanei dagokienez, dokumentuak itzuli edo zuzentzeko, eta hizkuntz aholkularitzarako zerbitzua eskaintzen die gainerako departamentu eta zerbitzuei. Alor honetan baita ere, Gipuzkoako

labor de las instituciones, para mejorar la gestión pública, se realice, desde una perspectiva más amplia, teniendo en cuenta a la ciudadanía.

2. DIRECCIÓN DE EUSKERA

La Dirección General de Euskera tiene como objetivo principal la planificación, coordinación e implementación de los esfuerzos en favor de la normalización del uso social del euskera en la sociedad y la administración gipuzcoanas.

En el campo de la administración, el ámbito de trabajo de esta Dirección está reglamentado por el Decreto 86/1997, de 15 de abril, que regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la CAV. En la DFG, durante el año 2013 se iniciará la aplicación del quinto Plan de Normalización del Uso del Euskera (2013-2017).

Por consiguiente, en 2013 se llevará a aprobación por el Consejo de Diputados la actualización del Decreto Foral 3/2009, de 27 de enero, por el que se aprueba el Plan de Normalización del Uso del Euskera en la Diputación Foral de Gipuzkoa para el periodo 2008-2012 (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 25, 9 febrero 2009). Además de los aspectos relacionados con los perfiles lingüísticos y fecha de preceptividad asignados a los puestos de trabajo, en él se regularán otros aspectos relevantes del plan, tales como las unidades bilingües y de euskera.

Además, durante 2013 continuará con la aplicación de los objetivos de mejora marcados en el informe de evaluación de la certificación Bikain, obtenida por la Diputación Foral de Gipuzkoa en 2011. Este aspecto cobrará especial relevancia en el impulso y orientación de los planes citados en el párrafo anterior, y, en general, de la política de normalización del uso del euskera en los ámbitos de trabajo de la Diputación.

En el campo de la administración, la Dirección General de Euskera presta servicio de traducción y corrección de documentos, así como de asesoramiento lingüístico, tanto al resto de departamentos y servicios de la

Aldizkari Ofizialean argitaratzeko iragarkien itzulpena bideratzen du.

Euskararen gizarte erabilera sustatzeko, berriz, Gipuzkoako udalekin koordinazio eta lankidetzaren programari jarraituko diogu 2013an. Programak baliabide eta tresna dira, besteak beste, udalei zuzenean emandako diru laguntzak (hain zuzen ere 2013an handitu egingo direnak), eta euskararen erabilera sozialaren sustapen lanetan ari diren udal teknikarientzako koordinazio eta prestakuntza profesionaleko programa bat.

Halaber, beste herri erakunde batzuekin batera, Euskara Zuzendaritza Nagusiak bere ekarpena egingo du Udaltop urteroko jardunaldien antolakuntzan. Jardunaldien xedeak dira eztabaida, iritzi-trukea eta auzolana bultzatzea, herri erakundeen hizkuntza politikari buruzko ikerkuntzaren eta jakintzaren esparruan.

Euskara Zuzendaritza Nagusiak aurrekontu zuzkidura bat jasotzen du jarduera esparru askotan laguntzak emateko.

Jarduera esparru hauetan EAEko erakundeekin, Gipuzkoako udalekin eta gainerako erakunde nahiz elkarteekin elkarlan estua bultzatu nahi da.

Azkenik, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren 2012-2015 bitarteko Plan Estrategikoan jasoko diren helburuak eta ekintzak zehaztu eta garatzen hasiko da Euskara Zuzendaritza Nagusiak.

3. BERDINTASUN ZUZENDARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko helburu nagusietako bat da emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea gure lurraldeko bizitza sozial, politiko, ekonomiko eta kultureko esparru guztietan. Hori dela-eta, Foru Aldundiak baldintza batzuk sortu nahi ditu sexuen arteko berdintasuna errazteko, berdintasun hori izatez eta eskubidez ukatzen duten hesiak ezabatzeko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen aurka eman litekeen edozein diskriminazio deuseztatzeko.

Diputación Foral de Gipuzkoa como al Boletín Oficial de Gipuzkoa.

En el campo de la promoción del uso social del euskera, en 2013 continuará con el programa de coordinación y colaboración estable con los municipios guipuzcoanos. El programa contempla, entre otras cuestiones, ayudas económicas directas a los municipios (que se verán incrementadas en 2013), y un programa de coordinación y formación destinado a los técnicos municipales de normalización del euskera.

Asimismo, la Dirección General de Euskera participará junto a otras instituciones en la organización del encuentro anual Udaltop, cuyos objetivos son el debate, contraste y transferencia de investigaciones y conocimiento relacionados con la política lingüística de las instituciones públicas.

La Dirección General de Euskera contempla una dotación presupuestaria para la concesión de ayudas en amplios campos de intervención.

En todos estos campos de intervención se busca una estrecha colaboración con las instituciones comunes de la CAPV, ayuntamientos guipuzcoanos y resto de instituciones y organismos.

Por último, Dirección General de Euskera comenzará a desarrollar los objetivos y acciones del Plan Estratégico de la Dirección General de Euskera para el periodo 2012-2015.

3. DIRECCIÓN DE IGUALDAD

Uno de los fines esenciales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida social, política, económica y cultural de nuestro territorio, fijándose como objetivo del mismo, la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, y la eliminación de todas las formas de discriminación hacia las mujeres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Testuinguru honetan, eta Emakumeen eta gizonen berdintasuneko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen esparruan Berdintasun Zuzendaritzak helburu hauek ditu: Berdintasuneko II. Foru Plana (2012-2015) diseinatzea, gauzatzea, garatzea, koordinatzea, jarraitzea eta ebaluatzea; berdintasunerako politikak dinamizatzea tokiko esparruetan; emakumeen jabekuntza eta partaidetza soziopolitikoak sustatzea; lurralde mailan, emakumeen aurkako bortizkeriaren aurkako borrokari osotasunean hartzeko mekanismoak artikulatzea; pertsonen eta bizitzaren zaintzan, elkarren ardura sustatzeko balizko neurrien inguruko hausnarketa eta azterketa sustatzea; lurraldean diren desberdintasun egoerak hobeto ezagutzea; eta Berdintasun eremuko agenteekin lankidetzan aritzea.

4. MIGRAZIO ETA ANIZTASUN ZUZENDARITZA

Euskal Herrian, orokorrean, eta Gipuzkoan, bereziki, aldaketa sakonak gertatu dira azken hamarkadetan. Horien arrazoiak, nagusiki, bi izan dira: batetik, egitura sozioekonomiko eta politiko propioek eraldaketa handia eta azkarra izan dutelako, baita gure inguruneak eta, oro har, mundu osoak ere. Eta bestetik, beste herri eta estatu batzuetako eta jatorri geografiko eta kultural diferenteko pertsona eta kolektibo ugari iritsi direlako gure artera eta modu diferentean integratu direlako.

Beraz, Euskal Herrian eta Gipuzkoan bizi diren identitate eta jatorri soziokultural ezberdinen arteko bizikidetzak dinamikoa eta elkarreagin konplexua oso handia izan da eta izaten jarraitzen du. Bizikidetzak hori, beraz, gizarte, ekonomia, politika eta kultura alorreko egitura guztietan gertatzen da. Elkarbizitza hori modu positiboan eta aberasgarrian bideratzeko, aniztasunak leku estrategiko bat izan behar du jardura publikoaren nahiz herrialde honetako eragile sozial, ekonomiko eta kultural ezberdinen hausnarketan eta kudeaketan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburua da elkarren arteko begirune eta aitopeneko

En este contexto, y en el marco de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, el programa presupuestario de la Dirección de Igualdad contempla las siguientes finalidades: diseño, elaboración, desarrollo, coordinación, seguimiento y evaluación del II Plan Foral de Igualdad (2012-15); dinamización de las políticas para la igualdad a nivel local; fomento del empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres; articulación de mecanismos para coordinar a nivel territorial el abordaje integral de la lucha contra la violencia hacia las mujeres; fomento de la reflexión y el análisis sobre posibles medidas para el fomento de la corresponsabilidad en el cuidado de las personas y de la vida; mejora del conocimiento acerca de las situaciones de desigualdad existentes en el territorio; y colaboración con agentes que actúan en el ámbito de la igualdad.

4. DIRECCIÓN DE MIGRACIÓN Y DIVERSIDAD

Euskal Herria en general y Gipuzkoa en particular han venido experimentando en las últimas décadas profundos cambios. Dos han sido fundamentalmente los motivos. Por una parte, la fuerte y rápida transformación de las estructuras socioeconómicas y políticas propias, así como de nuestro entorno y del resto del mundo. Y por otra, la elevada llegada y diferente incorporación de personas y colectivos procedentes de otros pueblos y estados y con otros orígenes geográficos y culturales a la sociedad vasca.

Así pues, la coexistencia dinámica e interacción compleja de las diversas identidades y orígenes socioculturales que conviven en Euskal Herria y en Gipuzkoa ha sido y es muy alta. Esta coexistencia atraviesa pues el conjunto de sus estructuras sociales, económicas, políticas y culturales. Para canalizar esta convivencia de una manera positiva y enriquecedora, la diversidad debe estar presente de una manera estratégica tanto en la reflexión y gestión de la intervención pública, como en la de los diferentes agentes sociales, económicos y culturales de este herrialde y de este país.

Es objetivo de la Diputación Foral de Gipuzkoa impulsar políticas de mutuo respeto

politikak sustatzea, Euskal Herriko pertsona guztiok bermatuak izan ditzagun gure eskubide politikoak, sozialak, ekonomikoak, linguistikoak eta kulturalak, eta babesekoak eta aterpekoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Migrazio eta aniztasun alorrean gidatuko duten printzipio eta helburuak 2013. urtean Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza Nagusiak garatu behar dituen 4. programan daude islatuta.

Horretarako, eta lehen aipatu den bezala, 2011ko uztailaren 19ko 24/2011 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oinarriko departamentu egiturari buruzkoak, 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Diputatu Nagusiaren Alorrean Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza Nagusia sortu zen, bere egitekoa izanik jatorrizko aniztasuna aitortzeko espazioak eta baliabideak antolatzea eta sustatzea, inplikaturako gainerako eragileekin eta erakundeekin batera.

5. KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiar dagokio 50. programa kudeatzea. Programa honek foru erakundearen komunikazio politikak zuzendu eta koordinatzeko aurreikusita dauden zuzkidurak jasotzen ditu, beti ere Gipuzkoako gizarteari Foru Aldundiaren jarduera eta politikei buruzko informazio etengabea eta iraunkorra eman eta eskaintzearen, eta bat etorritik gobernu taldearen kudeaketarako lehenetsuntzat hartutako gardentasun konpromisoarekin.

Komunikazio politika Gipuzkoako Foru Aldundiaren hurbiltasun helburuaren zerbitzura egongo da, hain zuzen ere, lurraldeko gizon eta emakume, erakunde, elkarte, enpresa, unibertsitate eta abarregatik hurbil.

Halaber, kanpo komunikazioan Foru Aldundiko departamentuei lagunduko zaie, hainbat komunikazio ekintza bideratuz.

Baita ere lurraldeko atari instituzionala den gipuzkoa.net-eko edukiak koordinatzeaz eta

y reconocimiento que garanticen los derechos políticos, sociales, económicos, lingüísticos y culturales, de asilo y refugio de todas las personas de Euskal Herria.

Los principios y objetivos que marcarán la actividad de la Diputación Foral de Gipuzkoa en materia de migración y diversidad en el año 2013 tienen su reflejo en el programa presupuestario 40, el cual se desarrollará por la Dirección General de Migración y Diversidad

A tal efecto, y como anteriormente se ha señalado, en virtud de lo dispuesto en el artículo 1 del Decreto Foral 24/2011, de 19 de julio, sobre estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se creó en el Área del Diputado General, la Dirección de Migración y Diversidad como órgano encargado de articular e impulsar, conjuntamente con el resto de agentes e instituciones implicadas, acciones, espacios y recursos a favor del reconocimiento de la diversidad de origen.

5. DIRECCIÓN DE COMUNICACIÓN

Corresponde a la Dirección General de Comunicación la gestión del programa 50, programa que contempla las dotaciones destinadas a la función de dirección y coordinación de las políticas de comunicación del ente foral, desde el objetivo de difundir y ofrecer a la sociedad guipuzcoana una información continua y sostenida de las actuaciones y políticas de la Diputación Foral, de acuerdo con el compromiso de transparencia asumido como prioridad en la gestión del equipo de gobierno.

La política de comunicación estará al servicio del objetivo de cercanía de la Diputación Foral de Gipuzkoa con los hombres y mujeres del territorio, con sus instituciones, asociaciones, empresas, universidades, etc.

Asimismo, se apoyará a los diferentes departamentos de la Diputación Foral en el desarrollo de acciones de comunicación externa.

También se responsabilizará de la coordinación de contenidos del portal institucional del

kudeaketaz arduratuko da. Diputatu nagusiaren eta herritarren partaidetzaren web guneak sortu dira.

6. GIZA ESKUBIDE ETA OROIMEN HISTORIKO ZUZENDARITZA

Zuzendaritza Nagusi berri hau sortu da, alde batetik, Giza Eskubideak sustatzeko eta laguntzeko politikak bultzatzeko asmoz. Zeharkako zuzendaritza da eta, ondorioz, gainerako Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuekin lankidetzan arituko da prestakuntza eta sensibilizazio programen bidez, elkarbizitza hobetzeko eta gatazkak konpontzeko xedearekin.

Memoria Historikoari dagokionez, zuzendaritza honek memoria hori berreskuratzea sustatuko du, egia, justizia eta biktimen aldeko ordaina bidaide, hartara hainbat urteetan gertatu eta ezkatatu zena zabaltzen laguntzeko.

Horretarako 60. programan hainbat ekimen sartzen dira, 2012ko ekitaldian bezala. Esaterako, ematea diru laguntzak giza eskubideen alorrean proiektuak gauzatzeko; edo diru laguntzak altxamendu militarrean, Gerra Zibilean eta diktadura frankistan zehar Gipuzkoan edo Gipuzkoarrek jasandako gertaeren oroimena berreskuratu, egia ezagutu eta gertaerak aitortzea xede duten proiektuak egiteko

territorio gipuzkoa.net, así como de la creación de sitios web del Diputado General y de participación ciudadana.

6. DIRECCIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y MEMORIA HISTÓRICA

Esta Dirección General se ha creado, de una parte, con la finalidad de reforzar e impulsar las políticas destinadas a la promoción y apoyo a los Derechos Humanos, de forma transversal, colaborando con los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y actuando a través de programas de formación y sensibilización, con el objetivo de mejorar la convivencia y facilitar la resolución de los conflictos.


Con respecto a la Memoria Histórica, esta Dirección impulsará la recuperación de dicha memoria, que bajo las premisas de verdad, justicia y reparación, contribuya a divulgar la verdad de lo ocurrido y durante tantos años silenciado.

Para ello, en el programa 60 se contemplan, al igual que en el ejercicio del año 2012, diversas acciones tales como la concesión de ayudas para la realización de proyectos en materia de derechos humanos o el otorgamiento de subvenciones para la realización de proyectos que tengan por objeto recuperar, conocer la verdad y reconocer los hechos acaecidos en Gipuzkoa o a personas de este territorio histórico durante la sublevación militar, la Guerra Civil y la Dictadura Franquista.

01 Departamentua DIPUTATU NAGUSIA
 Departamento 01 DIPUTADO GENERAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1	ONDASUN ET SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK/ 3	OHIKO DIRU LAG. ETA TR 4	INBERTSIO ERREALAK/ 6	KAP. DIRU LAG.ETA TRA 7	FINANTZA AKTIBOAK/ 8	FINANTZA PASIBOAK/ 9	Aurrekontu Guztira
Programas	GASTOS DE PERSONAL	G. CORR. EN BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFEREN. Y SUBV.CORR	INVERSIONES REALES	TRANS Y SUB DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	Total Presupuesto
01.Diputatu Nagusia Departamentuko Idazkari Teknikoa/ Secretaría Técnica Departamento Diputado General	131,17	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	131,17
10.Diputatuen Kontseiluaren Lehendakaritza/ Presidencia del Consejo de Diputados	872,18	1.162,02	0,00	8.666,25	105,77	427,50	0,00	0,00	11.233,71
11.Herritarren Partaidetzara/ Participación Ciudadana	0,00	295,00	0,00	474,00	0,00	0,00	0,00	0,00	769,00
20.Euskararen Normalkuntza/ Normalización del Euskera	969,63	829,70	0,00	2.591,79	100,32	982,53	0,00	0,00	5.473,97
30.Berdintasuna/ Igualdad	252,44	633,88	0,00	416,21	5,00	0,00	0,00	0,00	1.307,53
40.Migrazio eta Aniztasuna/ Migración y Diversidad	76,76	642,31	0,00	170,00	3,50	0,00	0,00	0,00	892,57
50.Komunikazioa/ Comunicación	125,49	1.998,05	0,00	22,75	61,88	0,00	0,00	0,00	2.208,18
60.Giza eskubideak eta Oroimen Historikoa/ Derechos humanos y Memoria Histórica	76,76	138,70	0,00	473,00	0,00	0,00	0,00	0,00	688,46
Departamentua Guztira	2.504,44	5.699,65	0,00	12.814,00	276,47	1.410,03	0,00	0,00	22.704,59
Total Departamento									



- 1. GASTOS DE PERSONAL
- 2. GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y
- 4. TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES
- 6. INVERSIONES REALES
- 7. TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES